



BEZEROEKIN HARREMANAK

Hasieran, ez dugu kontaktu zuzenik izango bukaerako bezeroekin. Arazoren bat badago multinazionalerara jo beharko dute laguntza eske eta horiek guri bidaliko digute gaizki dagoen produktua.



Multinazionalerakin, bilerak urtaro aldaketa dagoenean egingo ditugu, haiek erabakitako lekuan, beraz, harreman zuzena izango genuke haiekin.



Bukaerako pertsonekin, gure denda propioak zabaltzean, harreman zuzena izango genuke ere, telefono eta korreo elektronikoko baten bidez. Noski, dendara etorri ahalko lirateke edozein arazo egongo balitz. Laburbilduz, harremana pertsonala izango da.



Produktuak saltzen ditugun webgune berean bezeroek aukera izango dute edozein iruzkin idazteko eta hor guk ere informazioa emango dugu produktuei buruz eta plastikoko bilketen inguruan (noiz, non, zenbat jaso den...).

